

Elefantearen paradigma ikusi



KIKE AMONARRIZ. SOZIOLINGUISTA

«Lehen pausoa eman dugu: bidegurutzera iritsi garela ohartzea»

Anton Abbadia saria jasoko du gaur iluntzean, Gipuzkoako Aldundiak emanda. Amonarrizek euskarari egindako ekarpena nabarmendu du epaimahaiak. Aurrera jarraitzeko «akuilu» modura hartuko du saria.





Elefantea(k)

Txerra RODRIGUEZ | 2015-12-10

Jakinen aurreko zenbakian esaten nuen sarri gogoratzen garela etorkizunaz. Eta hala da. Horren seinale Patxi Saez Belokik www.erabili.eus agerkarian argitaratu duen artikulua: 'Euskararen elefantea ikusi'. Patxi hurrengo 30 urteetako euskalgintzaren zikloa zeharkatu behar duen estrategia marraztu eta zirriboratu gura izan du.

Izan ere, Joshua Fishman soziolinguistaren berba batzuetatik abiatu du bere analisia: «Problema txikiez ardura zaitezke, problema nagusia ikusi gabe. Hori izango litzateke zoologikora joan eta bakarrik zorriak ikustea, elefantea ikusi gabe». Eta Patxi euskararen elefantea hemen ikusten du:

Euskal Herriko gizarteak belaunaldi berriak euskalduntzen erabilitako diru guztiak eta egindako ahalegin guztiak zapuztu egiten ditu lan munduak. Horixe dugu, gaur-gaurkoz, euskararen berreskurapenean askok ikusten ez duten eta begi bistan dagoen *elefantea*. Horixe da, gaur-gaurkoz, euskarak duen problema nagusia.

Patxi Saezek artikulua nagusia prestatu eta hainbat euskaltzaleri eskatu dio haren gaineko iritzia. Momentuz 50 pertsonatik gorak eman dio erantzuna eta aspaldiko iritzi truke errespetuzko bezain dibergentea piztu da euskalgintzan. Eta, gainera, aldeak alde, ia erantzun dugun guztiok bat gatoz kontu batekin: ziklo bat amaitu da euskalgintzan eta euskararen biziberritzean. Eta ziklo berria amesten, zirriborratzen eta egiten hasi beharrean gaude. Astiro, baina tinko.

barik, elefanteak ikusi dituzte guztiak, edo Mikel Zalbideren berbetan esanda, arazoa multifaktoriala dela konturatu dira.

Diagnostikoan bat ez etortzeaz aparte, etorkizunean segitu beharreko lehentasunak (eta bigarrentasunak eta, seguruenik, azkentasunak) zehazten ere ez dira bat etorri artikulua jira-biran dantzan ibilitakoak. Etorkizuneko hariekin sokasaltoan estropezu ez egiteko proposatutako irtenbideak askotarikoak (eta, kasu batzuetan, kontrajarriak) dira. Hala ere,



aiaraldea • eus

Aiaraldeko
hamabostekaria
2016 /// Abenduak 3 ///
OSTEGUNA
42. zenbakia ///
Doan ///
www.aiaraldea.eus

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Euskara, pieza mugitzeko beharra



_erreportajea

Euskara zugzwang-en?



“Impass” batean dago euskararen aldeko borroka Aiaraldean, ez aurrera ez atzera. Hori diote euskararekin erlazionatutako zenbait eragile eta norbanakok. Ziklo berriak ireki behar direla uste dute batzuek, eta euskara ikasteko motibazio berriak sortu behar direla besteek. Gako nagusia, baina, ezagutzatik erabilerara eman beharreko saltoan dago. Nork mugituko du hurrengo pieza?



ANUNTXI ARANA

Antropologoa

"Euskara, 'impass' batean dago, ez atzera ez aurrera, kantitateari dagokionez, eta kalitateari dagokionez, atzera doa, dudarik gabe".



MIKEL AYLLON

Idazlea

"Eta okerrena da arazoa begien aurrean dugula eta ez diogula begiratu nahi, pasillo erdian dagoen elefantea bailitzan. Zenbat jendek irakurtzen du euskaraz? Zenbat jendek ikusten du telebista euskaraz? Zenbat jendek gozatzen du euskaraz? Zenbat jendek negar egiten du euskaraz? Funtsean, zenbat jende bizi da euskaraz?"



JUANJO RESPALDIZA

Bertsolaria

"Edozeinek ikusteko modukoa da ziklo baten amaiera bizitzen ari garela, eta ez soilik euskararen arloan".



JOSEBA LLANO

Hogeitalau euskara elkartea

"Ziklo baten amaiera iritsi zaio euskaigintzari. Frankismotik ateratzean egitasmo batzuk jarri ziren martxan, eta gaur egun nabaritzen dira horren emaitzak; euskararen ezagutza mailari begira batez ere".




TOÑO VALLES

Basalarrina Topagunea


"Hezkuntzan jarri ziren
helburuak bete egin dira.
Baina ez da helburu
gehiagorik markatu, eta
euskara komunikazio
alorretik gutxiagora doa".

24. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera. EAE, 1991-2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2011


Lehen hizkuntzaren bilakaera. Azpeitia, 1986 - 2011 (%)




Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

Euskara gaitasuna vs erabilera

Datuen jatorria: Gaindegia, UEMA (<http://46.226.108.156/UEMA/atlas.html>)



Euskal hiztunak udalerrrika





SONIA ABEZIA

Aiaraldeko Hezkuntza Foroa

"Gure erronka euskara
eskola eremutik
ateratzea izan behar da,
herriko kaleetara
eramateko".

Iraultza zientifiko bat behar dugu

Pruden Gartzia

Euskaltzain urgazlea

Oso deigarria egin zait Patxi Saezek euskararen arazoa aurkezteko hautatu duen modua, alegia, esaten digu elefante bat daukagula etxeko egongelan eta hari erreparatu ordez nahiago dugula ezikusariena egitea. Elefanteak kristonetako enbrazua egiten du, traba galanta da, baina geu hura existituko ez balitz bezala saiatzaren gara bizitzen. Eta ezin da.

Euskarak ez du aurrera egiten, hori da egia, hutsa, gordina, osoa. Eta ez, ez gaitzen hasi esaten botila erdi hutsik ikusi daitekeela, edo erdi bete-ta. Duela hamar urte hori egia zen, apika, gaur egun ez, gaur egun ez da. Gaur egun euskarak ez du aurrera egiten eta laster, ziur aski, atzeraka hasiko da. Hori ez ikustea, ikusi nahi ez izatea, etxeko salako elefantea ikusi nahi ez izatea bezalakoa da. Horra.

Irakurle maitea, mila eta bat adibide jar daitezke egia desatsegin hori

ezaguna egingo zaizu Thomas S. Khun eta bere liburu enblematikoa, Elhuyarrek 1990ean euskaraz argitaratu zuena: *Iraultza zientifikoaren egitura* (ituzultzaileak, Jesus Arrizabalaga eta Ester Mugertza). Edo izena ezaguna egiten ez bazaizu, ziur baduzula paradigma aldatetaren aditza, edo komunitate zientifikoarena. Biak Khunek sortu edo zirkulazioan jarritako kontzeptuak dira, egun hitzetik hortzera erabiltzen direnak zientziaren alor ugarietan. Biak oso garrantzitsuak eta harira datozenak.

Zeren Patxi Saezek eskatzen duena, funtsean, paradigma aldaketa bat da, alegia, eta betiko adibidea erabilita, garai batean Fisika Newtonen sortutako paradigmatik ikusten genuen, gero (XX. mende hasieran) iraultza zientifiko bat gertatu zen eta paradigma aldatu zen, hortik aurrera Fisika Einsteinek sortutako paradigmatik hasi ginen ikusten (erlatibitatearen teoria). Esan nahi ote du horrek Newton oker zegoela eta Einstein zuzen? Newtonen deskribaturiko legeak okerrak eta zentzugabeak zirela? Ez, jaun-andreok, paradigma aldaketa bat ez da hori, beste hau baizik: Einsteinek ez zuen Newton desegin, gainditu bai ordea, Fisika ulertzeko modu berri bat eskaini, zeinaren bidez

Patxi Saezek eskatzen duena iraultza zientifiko bat da, elefantea ikustea eta elefantearekin zer egin erabakitzea. Eta elefantea, Patxi Saezentzat, lan-munduari euskalduntzea da.

Nik neuk ere ekarri nahi nuke nire alea, agian ez garrantzitsuena, baina aipagarria. Eta elefantea, nire begietan, administrazio publikoaren euskalduntzearen porrota da, zehatzago esanda, hizkuntza-eskakizunen sistemaren agortzea. Euskarak aurrerakada itzelak egin ditu hezkuntza-sisteman baina porrot ikusgarria administrazio publikoan. Galdera baten bidez azal dezagun: bihar, batean, euskaraz lan egiten duten, ez euskarazko titulua duten, baizik eta euskaraz lan egiten duten langile guztiak lanera joango ez balira, zer gertatuko litzateke? Hezkuntza-sistemaren kolapso osoa, edo ia-ia. Eta Eusko Jaurlaritzan, ordea, zertan igarriko litzateke? Ba ote da adorerik galdera horri erantzuteko?

Zergatik hezkuntza-sisteman izan dugu hain arakasta handia eta administrazio publikoan hain porrot mingarria? Erantzuna oso erraza da: batean hizkuntza-eskakizuna atera behar zelako eta ondoren euskaraz lan egin; bestean, aldiz, hizkuntza-eskakizuna atera eta gero gaztela-

Nahikundetik

Nahikundetik errealliter, kontzeptutik gauzatzera, egitasmotik neurritara bada tarte bat, arriskutsua eta zorabigarria izan daitekeena.

Erosoago bizitzen da nahikunde, kontzeptu eta egitasmoetan. Merkeago ere bai. Baina nahikunde, kontzeptu edo egitasmo bat baduenak hura eraman behar du errealliter, hura gauzatu behar du, eta horretarako neurriak hartu, ez badu hipokrisian erori edo koldartzat joa izan nahi.



JIRA
Angel Erro

Egunotan oso modu hipokrita edo koldarrean jokatzeko ari dira Ezkerra eta Ahal Dugu Nafarroan,

printzipioz ados dauden hastapenak, euskara UPN eta PSNko gobernuek eraman duten gutxiespen egoeratik ateraztekoak, praktikan eraman behar dituen hainbat neurriren aurka jota. Plaza bati *Askatasun* izena ematea gauza bat da eta askatasuna bermatzea beste bat, oso bestelakoa.

Batek daki zergatik jokatu duten horrela. Egitasmoaren kontra hasieratik dagoenari ezin zaio erraz ulertzen ahalgobernuak irakasle euskaldunak kontratatzean edo Iruñeko Udalak euskararen aurrekontua hirukoiztean espantuka hasten bada, ez baitu aurreko egoera, berak berriaz eragindakoa, zuzentzea nahi. Esan bai baina benetako orduan ja egin nahi ez duenak ere ez duela gauzak zuzentzea nahi hasi beharko dugu pentsatzen.

Zazpi

Barrura begira aski maiz jar gaitzekin arren, goitik hasi eta behearainoko errepasoa, bizitzak emandako urtean eta gertaeren balantze zintzoa, zazpi urtetik behin-edo egiten omen du norberak, zorigaitz larriren batek horretara lehenago bultzatu ez badu behintzat.

Iraultza zientifiko bat behar dugu

Pruden Gartzia

Euskaltzain urgazlea

Oso dei zait P euska zoa a hauta modu esaten digu elefante bat d etxeko egongela eta har orde z nahiago dugula ezi egitea. Elefanteak kriston razua egiten du, traba gal baina geu hura existituk bezala salatzen gara bizit da.

Euskarak ez du aurrer da egia, hutsa, gordina, o ez gaitzen hasi esaten be hutsik ikusi daitekeela, e ta. Duela hamar urte hori apika, gaur egun ez, gaur Gaur egun euskarak ez di egiten eta laster, ziur aski hasiko da. Hori ez ikuste izatea, etxeko salako el ikusi nahi ez izatea bezalakoa da. Horra.

Irakurle maitea, mila eta bat adibi- de jar daitezke egia desatsegin hori

ezaguna egingo zaizu Thomas S. Khun eta bere liburu enblematikoa, Elhuyarrek 1990ean euskaraz argita- ratu zuena: *Iraultza zientifikoaren egi- tura* (itzultzaileak, Jesus Arrizabalaga

Zeren Patxi Saezek eskatzen duena, funtsean, paradigma aldaketa bat da, alegia, eta betiko adibidea erabilita, garai batean Fisika Newtonen sortu- tako paradigmatik ikusten genuen, gero (XX. mende hasieran) iraultza zientifiko bat gertatu zen eta paradig- ma aldatu zen, hortik aurrera Fisika Einsteinek sortutako paradigmatik hasi ginen ikusten (erlatibitatearen teoria). Esan nahi ote du horrek New- ton oker zegoela eta Einstein zuzen? Newtonen deskribaturiko legeak okerrak eta zentzugabeak zirela? Ez, jaun-andreok, paradigma aldaketa bat ez da hori, beste hau baizik: Eins-

dat ez da hori, beste hau baizik: Eins- teinek ez zuen Newton desegin, gain- ditu bai ordea, Fisika ulertzeko modu berri bat eskaini, zeinaren bidez

Patxi Saezek eskatzen duena iraul- tza zientifiko bat da, elefantea ikustea eta elefantearekin zer egin erabaki- tzea. Eta elefantea, Patxi Saezentzat, lan-munduaren euskalduntzea da.

teinek ez zuen Newton desegin, gain- ditu bai ordea, Fisika ulertzeko modu berri bat eskaini, zeinaren bidez aurrerakada zientifiko itzelak gertatu ziren. Zeren, funtsean, Newtonen paradigma agortua zegoen, eman beharrekoa emanda, elkortua, biziga- betua. Hitz batean, ordurako hila eta fosiltzen hasia.

Patxi Saezek eskatzen duena iraul- tza zientifiko bat da, elefantea ikustea eta elefantearekin zer egin erabaki- tzea. Eta elefantea, Patxi Saezentzat, lan-munduaren euskalduntzea da.

Nahikundetik errealtatera, kontzep- tutik gauzatzera, egitasmotik neu- rrietara bada tarte bat, arriskutsua eta zorabigarria izan daitekeena.

Erosoago bizitzen da nahikunde, kontzeptu eta egitasmoetan. Merkeago ere bai. Baina nahi- kunde, kontzeptu edo egitasmo bat baduenak hura eraman behar du errealtatera, hura gau- zatu behar du, eta horre- tarako neurriak hartu,



JIRA
Angel Ero

ez badu hipokrisian erori edo koldartzat joa izan nahi.

Egunotan oso modu hi- pokrita edo koldarrean jokatzeko ari dira Ezkerra eta Ahal Dugu Nafarroan,

printzipioz ados dauden hastapenak, euskara UPN eta PSNko gobernuak eraman duten gu-

ratik ateraztekoak, praktikan er dituen hainbat neurriren aurka i Asatasun izena ematea gauza atasuna bermatzea beste bat, oso

zergatik jokatu duten horrela. Egi- ontra hasieratik dagoenari ezin zaio ahalgobernuak irakasle euskal- tatzean edo Iruñeko Udalak eus- kontua hirukoiztean espantuka ez baitu aurreko egoera, berak be- lakoa, zuzentzea nahi. Esan bai co orduan ja egin nahi ez duenak auzak zuzentzea nahi hasi behar- satzen.

n


rura begira aski maiz jar gaitzke- narren, goitik hasi eta behearino- o errepassoa, bizitzak emandako urtean eta gertaeren balantze zin- tzoa, zazpi urtetik behera edo egiten omen du norberak, zorigaitz larriren batek horretara le- henago bultzatu ez badu behintzat.

Ibilbide naturala (A)

motibazioa

ezagutza

erabilera



motibazioa


ezagutza

erabilera

Ibilbide kulturala (B)



Gurdiaren paradigma (2016)





Ikaskuntzaren konoa (Edgar Dale)

Gogoratu ohi dugu

Egiteko gai gara



Ikasitako edukiaren batez besteko jasotze portzentaia 24 orduren buruan, irakaskuntza metodoaren arabera



Hemendik aurrera zer? Eusko Jaurlaritza, 2015

motibazioak -bai, motibazioak pluralean, motibazio berriak- lantzeko garaia da. Arauak bai, zalantzarik gabe, baina motibaziorik gabe alferrik dira arauak, eta motibazioak ere ezin du izan soilik politikoa. Motibazio berriak behar ditugu, ziurrenik elkarbizitzari eta prestigioari oso lotuak, beste zenbaiten artean euskara jakin eta erabiltzearen harrotasunari lotuak.




ANGELA RICO

AEK

"Ezagutza datuak asko aldatu dira azken hamarkada honetan baina, tamalez, euskararen kinka ikusirik, esango nuke euskaraz hitz egitea eta, batez ere, euskaraz bizitzea ez dagoela jendearen lehentasunen artean, ez da beharrezkoa ikusten, eta hau da gakoa".

Gurdiaren paradigma (2016)



Ama, beti ama!

- Katalana: *mamà* / *mama*
- Nederlandera *mama* / *mam*
- Ingelesa: *mama* / *momma* / *mam/mum/mom*
- Frantsesa: *maman*
- Alemaniera: *mama*
- Grekera: *μamá* (*mama*)
- Islandiera: *mamma*
- Irlandera: *mamá*
- Italiara *mamma*
- Lituania: *mama*
- Lonbardiera: *mader*
- Norvegiera: *mamma*
- Poloniera: *mama*
- Portugesa: *mãe* / *mamãe* / *mamã*
- Errumaniera: *mama* / *mamă*
- Errusiera: *мама* (*mama*)
- Serbiera: *mama*
- Gaztelania: *mamá* / *mami*
- Suediera: *mamma*
- Suizako alemaniera: *mami*
- Ukraniera: *мама* (*mama*)
- Galesa: *mam*

- Mandarin txinera: *māma*, *mā*
- Koreanoa: *eomma*, *amma*
- Kutenai (Asia): *ma*
- Kanboianoa: *ma*
- Japoniera: *haha* / *mama*
- Vietnamera: *mẹ*
- Vietnamera (hegoaldean): *má*
- Tibetera: *amma*
- Nepalera: *aama*
- Zingalesa: *mawa*
- Urduera: *mawa*
- Konkaniera (India): *amma* / *aayi*
- Asamesa (India): *ma* y *aai*
- Bengaliera: *maa*
- Hindiera: *mātā*
- Tamilera: *Thaai* / *Amma*
- Malayalamera: *mama*
- Ugurrera (Asia erdian): *ana* / *apa*
- Tailandera: *แม่* (e luzea goitik beherako tonuaz)
- Turkiera: *ana*.
- Hungariera (Hizkuntza uralikoa): *anya*
- Georgiera (Hizkuntza kaukasikoa): Alderantziz, aita: *მამა* (*mama*). Eta ama: *დედა* (*deda*).



ikain
euskaraRen
kalitate ZIURtagIRia



Carlos Salvador

@ccsalvador_

Diputado navarro de @upn_navarra

2012(e)ko uztailak(e)tik Twitterren

 (r) txiokatu

 Ezagutzen dituzun 3 jarraitzaile



 337 Argazki edo bideo



TXIOAK
3.338

JARRAITZEN
375

JARRAITZAILEAK
1.430

GUSTUKOAK
48

Txioak

Txioak eta erantzunak

Argazkiak eta bideoak



Carlos Salvador

@ccsalvador_



Jarraitu

Obligar a aprender un segundo idioma para poder hablar con los mismos -ni uno más- con los que ya te comunicas con el primero ¿es necesidad?

BERTXIO
1

ATSEGITE
1




23:41 - 2016 urt. 15





Giza beharren piramideak

Maslow, 1943





Carlos Salvador

@ccsalvador_



Jarraitu

Estudiar euskera no es una necesidad educativa.
Garantizar el dominio del inglés ofrece más posibilidades para encontrar trabajo. Fácil.

BERTXIO

1

ATSEGITEAK

3



22:15 - 2016 urt. 15





1968ko batzarraren hartra egindako ondorengo bileran batean bildutako euskaltzainak, Arantzazun. Argazkia: Juan San Martín/DG

Pizkunde berri baten bila, Euskaltzaindia gidari?

PATXI SAEZ BELOKI SOZIOLOGISTAK EUSKALGINTZAK ETORKIZUNEAN JARRAITU BEHARREKO ESTRATEGIA ZEHAZTEKO LIDERGOA HAR DEZAN ESKATU DIO AKADEMIARI

■ A. Zabaletaren erreportajea

“Euskararentzat hil ala bizikoa da, bigarren hizkuntza izatek lehen hizkuntza izatera pasatzeko”. Patxi Saez Beloki soziolinguistak garbi dauka euskarak estrategia berria behar duela etorkizunerako eta proposamen zehatza egin dio Euskaltzaindiari, estrategia horren diseinuan eta prozesuan lidergoa

har dezan. Euskararen Akademiak eskaera aztertzeko konpromisoa hartu du otsailaren 12an egingo duen mintegian.

Saez Beloki Azpeitiko Euskara Patronatuaren zuzendaria da eta Sarean egin zuen lehenengo aldiz egun euskarak bizi duen egoeraren irakurketa. Bertan estrategia berriaren beharra azaldu zuen. Euskararen

egunean hainbat hedabidetan argitaratu zuen Euskaltzaindiari ere bidali zion eskutitza, prozesua bideratu dezan. Sarean egindako inkestaren erabiltzaileen %80 harekin bat zetozela ikusi zuen.

PIZKUNDEA ETA ELEFANTEA Soziolinguistak egiten duen analisiak aitortzen du azken 50 urteotan euskarak

pizkunde aldia bizi izan duela. Euskaratuari esker, euskarazko hezkuntzari esker eta helduen euskalduntzeari esker 300.000 hitz-tun irabazi ditu eta belaunaldi gazteen euskalduntzea arrakastatsua izan da. Kulturgintzan ere loraldia izan da: euskarazko liburak, antzerki lanak eta hedabideak biderkatu egin dira eta Sarean presentzia

garrantzitsua dauka egun euskal hizkuntzak.

Baina “eskolak euskaldundu duena lan munduak erdaldundu” egin duela uste du soziolinguistak, eta lan mundu hori euskalduntzea euskararen berreskurapenean giltza dela. Arazo nagusia dela dio, aurrez aurre dugun eta ikusten ez dugun “elefantea”. Gainera, herritar askorentzat euskara bigarren hizkuntza izatea ere arazoa da. Gauzak horrela, herritar euskaldun askok euskaraz ez dute erabiltzen eta euskalgintzak arazo horri nondik heldu ez dakielako dirudi.

Horregatik, eta arazo horiei aurre egiteko nondik jo behar duen argitzeko dinamika eta gogoeta bat abiatu behar dela uste du Saez Belokik, hurrengo ziklo luzearen nondik norakoak zehazteko. “Euskaltzaindia da euskaldun guztion artean onarpenik zabalena duen erakundea, neutrala da, alderdikeriarik gabekoa eta euskal gizarte osoaren onarpena eta aitortza duena”, dio bere eskutitzak. Horregatik eskatu dio lidergoa har dezan.


Akademia 1918. urtean sortu eta 50. urteurrenean euskara batua edo estandarizatu sortzeko Arantzazuko biltzar nagusia egin zuen, azken urteotako pizkundea ahalbidetu zuen lehen pausoa. Horregatik, eta 2018. urtean mendeurrenaren beteko duela kontuan hartuz, urte horretako batzar nagusia berriz ere mugarri bat izan daitekeela uste du Saez Belokik, orduan “datozen 25 edo 30 urteko ziklo luzean jarraitu beharreko gizarte dinamikak eta nondik norakoak” finkatuz gero, beti ere, “euskara gizarteko hizkuntza nagusi bihurtzeko jomugarekin”.

LAN ESPARRUA ZABALDU Dinamika berri hori abiatzea “hil ala bizikoa” dela euskararentzat gaineratzen du soziolinguistak Euskaltzaindiari luzatutako eskutitzan eta horregatik bere lan esparrua zabaldu eta erronkari aurre egiteko eskatzen dio, prozesua gidatuz.

Euskaltzaindiak erantzun dio, jada, azpeitiarrari: otsailko mintegian aztertuko du eskaera eta mintegi horretan parte hartzeko dela egin die elkarte, erakunde eta herritarrei. Ekarpentak egiteko aldia ere zabaldu du Akademiak (urtarrilaren 16ra arte). Berez, euskararen egoera aztertu eta aurrera begirako erronkak eta zereginak zehazteko helburua dauka Bilbon antolatuko duen mintegiak. ●


Laburpena

Euskaltzaindiak orain 50 urte Euskararen Batasuna egiteko aginte makila hartu zuen bezalaxe, gaur egun, ondorengo 25-30 urteei begira, Euskararen Gizarte Erabilera bideratzeko gidaritza hartu behar du.



BAI, ados nago.	522	% 83.4
EZ	104	% 16.6

Euskaltzaindiaren 50. urteurrenean, 1968an, egin zen Euskara batu edo estandarizatu zuen Arantzazuko Biltzar Nagusia. Euskaltzaindiak, aurki, 2018an, 100 urte beteko ditu. Euskararen Erabilera bultzatzeko aro berriari hasiera Euskaltzaindiak 2018an antolatuko lukeen Mendeurreneko Biltzar Nagusiak emango dio. Mendeurreneko Biltzar Nagusi horretan, ondorengo 25-30 urteetarako, Euskararen Gizarte Erabileraren oinarriak eta estrategiak finkatuko dira.



BAI, ados nago.	533	% 85
EZ	94	% 15

Eskerrik asko!